



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak behar bezala funtzionatzeko honakoak dira ezinbestekoak diren jarduerak:

Lehenengo pausoa bezeroak erakartzea da, haienganako arreta eta kanpo-komunikazioa. Gurea bezalako proiektu batek aurrera egin dezan, ezinbestekoa da bezeroak izatea. Beraz, behin gure zerbitzuen azpiegiturak prest egon daitezkeela uste dugunean, hauek erakartzeko hainbat estrategia jarriko ditugu martxan; batez ere hasieran: Hezkuntza zentro zein udalekuetako arduradunekin bilerak, influencer desberdinekin akordioak, komunikazio kanpainak tokiko hedabideetan, online plataformetan profilen sorrera eta presentzia bermatzea, triptikoen eta informazio-buletinen banaketak inguruko turismo-bulego, alojamendu zein turisten interesguneetan, e.a.

Behin bezeroak erakartzea lortuz gero, hauen feedback-a jaso eta hauek mantentzeak berebiziko garrantzia izango du; batez ere behin eta berriz Jarraituz, Amaia merkataritzako ardura izango da eta fidelizatzeko merkataritza-estrategia definitzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da. Merkatua eta eskaria aztertu behar ditu, prezioak finkatu behar ditu eta publiko desberdinei egokitutako eskaintzak diseinatu behar ditu, hala nola familiei, ikastetxeei edo turistei egokitutakoak. Salmentak, erreserbak eta banaketa-bideak kudeatzen ditu, bai aurrez aurre eta baita online ere. Marketineko ekintzak burutzen ditu, turismo-bulegoekin eta tokiko administrazioekin lankidetzan. Bezeroarentzako arreta eta merkataritza-zerbitzuaren kalitatea gainbegiratzen ditu. Beste aldetik bezeroen arreta ere bere arduritzapean egongo litzateke, gure zerbitzuak ondo zuzenduz bezeroan beharrak betetzeko.



Hasteko, Danel finantza arduraduna izango da, beraz, administrazioa eta finantzak eramatea tokatuko zaio. Hau dela eta, deskontuen eta publizitate kanpainak egiteko diru kontuan eramatea ere bere gain dago, adibidez. Finantza arloko jardueran kostu guztiak zehatz mehatz antolatuko dira programa desberdinak erabiliz. Deskontuak, esaterako, bezeroren batek bidaia kantitate jakin bat egin ondoren lor dezake, beraz, pertsona edo familia batek zenbat eta bidai gehiago egin, orudan eta deskontu handiagoa izango du hurrengo bidai posible baterako. Danelen ardura izango da enpresaren ongizate ekonomikoa gainbergiratzea, kontabilitatea kudeatzea, aurrekontua, enpresaren arriskuak prebenitzea, errentabilitatea eta egonkortasuna ezartzea... Honez gain, etorkizunari begira inbertsio bat egin behar bagenu, Danelen ardurapen geldituko litzateke zertara bideratzen dugun gure dirua. Honetarako behar dugun dirua gehiegizkoa bada, bere gain egongo da diru hori lortzea, bankuekin harremanetan jarriz, adibidez.

Bizikletan arduraduna Ibon izango da. Bere eginkizuna eman beharreko zerbitzua eman ahal izateko behar ditugun materialak hautatzea eta eskuratzea izango da. Horretarako, lortu behar diren ondasunekin bat egiteko beharrezkoak diren prozesuen multzoa burutu beharko du. Ibon eskaintza eskarira egokitzeaz arduratuko da, denboraldiaren arabera, noski. Bizikiletak prestatzeko prozesua gainbergiratuko du. Honek berekin dakartzan sailak bere gain hartzen ditu, hala nola, biltegia, mantenua eta bezeroekiko arreta. Biltegiko arduraduna denez, flota guztia eskuragarri dagoela, egoera onean dagoela eta bezeroentzat segurua dela bermatu behar du. Beraz, biltegiko, mantenuko eta bezeroekin jarduten duten langileak gainbegiratu behar ditu. Honez gain, kostuak kontrolatzen ditu, gorabeherak aztertzen ditu eta hobekuntzak proposatzen ditu zerbitzua eta erabiltzaileen esperientzia optimizatzeko. Gehitzekoa da bizikletan garraioaren ardura Ibonek kudeatuko duela kontuan izanez, esperientzian parte hartuko duten pertsonen kopurua, gurekin lanean egongo den beste langilea, hau da, garraioaren arloan dabilenarekin harremanetan jarri eta bidai bakoitzeko garraioa antolatuko du.

Azkenik, Alba, giza baliabidetako arduraduna izango da. Honek plantilla kudeatu, zuzendu eta langileak kontratatzeko eginkizuna izango du. Hau da, Ibonentzat edo Amaiantzat lan gehiegi izanez gero, Alba arduratuko da jende gehiago kontratatzeaz. Seguritatetarako eta bezeroekiko harremanetarako prestakuntza ere bere gain egongo da. Txandak, orduategiak eta oporrak antolatzen ditu, eta lan-araudia betetzen dela bermatzen du. Laneko arriskuen prebentzioa eta langileen



ongizatea ere kudeatzen ditu. Gainera enpresaren sare sozialak eta webgunea kudeatuko ditu, gure bezeroek gure zerbitzuen eta berrien informazioa jasotzeko. Berriak eguneratuz joango da gure enpresak zer eskaintzen duen erakusteko.

Enpresako lau langile hauetaz gain, beste pare bat arduratu beharko lirateke monitore bezala lan egiteko, beraz, hauek kontratatu egin beharko genituzke. Honetaz giza baliabideetko arduraduna arduratu beharko litzateke, hau da, Alba. Langilea bere perfilaren eta kurrikulumaren arabera hautatuko luke, bere trebetasun sozialak eta egoera fisikoa kontuan izanik.

Lehen esan bezala, biltegiko arduraduna, Ibon, lanpetuta egongo da, beraz beste langile bat kontratatu beharko genuke taillererako, bizikletak konpontzeko eta hauen egoera ona bermatzeko. Beraz, kontratatutako hau garraioaz ere arduratuko litzateke, bizikletak lokaletik bidera mugitzeko eta alderantziz.